

AZKEN BI LEGEALDIEN BALORAZIOA, ARLOZ- ARLO

KULTURA

- ✓ 2003-2007 legealdian, Kultura eta Jai Batzordearen desagerpena.
- ✓ 2003-2007an, diru-laguntzen araudiaren inposatzea.
- ✓ 2003-2007an, Ondarroako Udalak Ondarroako Historia Zaleak elkartearekin zuen hitzarmena berriztatu ez.
- ✓ 2008ko Erdi Aroko Jaiaren kudeaketa makal eta interesatua: aurkezpen prentsaurrekoa bertan behera.
- ✓ Portuko biribilgunean eskultura egiteko esleipen lehiaketan irregulartasunak. Aurrekontua: 200.000 euro. Epaimahaian soilik gestorakoak eta kanpotarrak; herriko talderik ez.
- ✓ Herriko talde kulturei lokalak kendu enpresa pribatu bati -Uren Partzuergoari- doan uzteko.
- ✓ Herri kulturaren ordeztu, kontratazioaren kultura bultzatzea. Proiektu kultural propiorik ez.
- ✓ Ondare artistikoa kaltetua: zubi birakariaren ardatza zementoz blokeatu, korreta azpiko argoilak moztu eta lekuz aldatu.
- ✓ Ondare historikoan kalteak: plaiko faroaren desagerpena, kontzeju zaharra botatzeko asmoa.
- ✓ Herriko taldeei onartutako dirulaguntzak ordaindu ez.
- ✓ Kofradia Zaharra erabiltzeko baldintzen zorroztea.
- ✓ Kultur Etxea azpierzarrita, udalaren utzikieriaz.

EUSKARA

- ✓ 2003-2007, Euskara Batzordearen desagerpena.
- ✓ 2003-2007, Hitza udal diru-laguntzarik gabe. 2007-2011an Amankomunazgoaren diru-laguntzarik gabe geratzen da hedabide euskalduna, bere egoera ekonomikoa kinka larrian utziz.
- ✓ 2003-2007an, Ondarroako Udala UEMATik kanpo geratu ostean ez da saiakerarik egin berriro bertan sartzeko.
- ✓ 2008an, Ondarroako euskara ordenantzak herriko euskalgintzaren partaidetzarik gabe onartuak. Ordenantzek elebitasuna bultzatzen dute erdararen presentzia areagotuz.
- ✓ 2007-2011an, Lea-ArtiBai Euskarari eta AEK-rekin udalak egindako hitzarmenak ez berriztatzea.
- ✓ 2007-2011an, Udalaren jendaurreko txostenak gaztelania hutsez, udal batzak gaztelaniaz...
- ✓ 2007-2011an, udalean gaztelaniaren presentzia babesteko Espainiar Konstituzioaren bidezko justifikazioa.
- ✓ Gestorakide bat behintzat erdalduna da eta udal langilegoarekin izan duen harremana erdaraz izan da.

KIROLA

- ✓ Euskal Herriarrok-en legealdian (1999-2003) hasitako estalitako frontoiaren obrak gelditu, kiroldegia inguruko erreferendum bat aurkeztu eta azkenean, ezertxo ere ez egiteko.
- ✓ 2003-2007 legealdian, Kirol Batzordearen desagerpena.
- ✓ Egia-Iriondo urtero kilinkolo, udal diru-laguntzarik ziurtatu gabe.
- ✓ Onartutako diru-laguntzak kobratu ez, edo oso berandu.
- ✓ Ordutegitik kanpo dauden ekitaldiak antolatzerakoan, kiroldegia erabiltzeko oztopoak.
- ✓ Kirol plangintza falta.

HIRIGINTZA

- ✓ Pantalanak egitea baimendu eta txalotu, eta eraikinetan arrakalak agertu direnean bere erantzukizunari uko egin.
- ✓ Alde Zaharreko Birgaitze Plana (PERI) onartu, 2000tik gora alegaziori entzungor eginez.
- ✓ Ustelkeria Txomin Agirre 28n.
- ✓ Ibon Aranbarriren senideek 240.000 euro kobratu dituzte, orain dela 30 urte Zaharretxea egiteko bere familiak saldutako lur batzuen truke!
- ✓ Izugarrizko dirutza xahutu, hain premiazkoak ez diren obretan (espaloiak, piboteak, farolak, horrelako Zaldupeko zubia...) herriaren itxurari emanek lehentasuna, eta ez herritarren premiei. San Inazio kalea hiru aldiz altxatu dute.
- ✓ Herrian obraren bat egin behar izan denean, eta honek, epe jakin baterako aparkalekuak kentzea suposatzen zuenean, ez dira leku gabezia hori aurreikusi eta kudeatu.
- ✓ Eguneko zentroa Zahar Etxearen ondoan egiteko herritarrek egindako proposamenari entzungor egin, eta Maskulo Etxean egin, nabarmena denean ez dela mota horretako eraikina egiteko lekurik egokiena.
- ✓ Bizikletan ibiltzeko bide egokiak planteatu beharrean, bizikleten ikurrekin margotu pasealekuak.
- ✓ Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoan sartu, inolako azalpenik eman gabe eta udalaren urarekiko eskumena galduz. Udalaren eta Partzuergoaren arteko hitzarmena oraindik ez dute argitaratu.
- ✓ Errenteria inguruko industri lurak eta industri jarduera hipotekatu, Eroskik makrozentro komertzial bat egiteko.
- ✓ Txomin Agirre Ikastetxeko jolastoki azpiko aparkalekuen inguruan, kudeaketa guztiz irregularra.
- ✓ Planeamendu Orokorreko Arauek iraungitze data aspaldi pasatu zuten (2005ean).

ETXEBIZITZA

- ✓ Iturribarri-Iñaki Deuna kalean diru publikoarekin egindako etxeak ezin salduta dabilzan bitartean, Aieriko padura suntsitzeko prest.
- ✓ Udalaren eraikinak erabilerarik gabe usteltzen: Arrigorri, Ospital Zaharra, Zeledonio...
- ✓ Ibaiondoko Etxeberriaren fabrikako lurren arauen kudeaketa irregularren ondorioz

irteerarik gabe.

- ✓ Antzolosoko etxebizitzaren proiektuak ez ditu legeak dioen baldintzak betetzen: ez du aparkamentu publikorik aurreikusten, ez dago babes ofizialeko etxerik, etab.
- ✓ Herrian 400 etxebizitza hutsik.

HERRITARREN PARTE HARTZEA

- ✓ Ondarroako udal batzak Bilbon eta “a puerta cerrada”.
- ✓ Herriko taldeak eta herritarrak gestorako kideekin biltzeko ezintasunak.
- ✓ Batzorde bat bera ez da batzen.
- ✓ Gardentasun gabezia udalean eta agiriaren desagerpena herriari buruzko informazioa eskatzen denean.
- ✓ Jaiei inguruan Felixekin batzartzera joateko sekulako kontrol poliziala igaro beharra.

LANGILEGOA

- ✓ Orokorrean, 8 urtetako balorazioa:
 - Udal zerbitzuak ordeztu dituen enpresa azpikontratatuaren igoera nabarmena eman da: ura, kale garbiketa, polikiroldegiko zerbitzuak, mantenu elektrikoa etab.
 - Honen ondorioz, udal zerbitzuen kalitatea jaitsi egin da, efizientzia galdu da: zabor biltzea Amankomunazgoak eramateak lehen arazorik ez zegoen lekuan arazoak sortu ditu, kale garbiketa herri guztira ez heltzea etab.
 - Azpikontratazioak murriztu eta zerbitzu hobe eta merkeago bat izateko Langile Komiteak egindako proposamenei ezezkoa eman zaie.
 - Udal langileen erretiro guztiak ez dira ordeztu.
- ✓ 2003-2007 legealdian, jai egunetako kale garbiketa zerbitzua Urbasa enpresari ematen zaio, eta hauek ez dira herri guztia garbitzera heltzen.
- ✓ 2003-2007 legealdian, zabor biltzea zerbitzua Amankomunazgoaren esku geratzen da eta horrekin batera, Ondarroako udalak erosi berri zituen kamioiak debalde ematen zaizkio Amankomunazgoari.
- ✓ 2007-2011 legealdian, udalean lanean egondako idazkaria, Langile Komiteari eta langileei beraiei inolako azalpenik eman gabe kaleratuak.
- ✓ 2007-2011an, udal langile batzuen gaineko mehatxu eta presioak, batzuk arrazoi politikoengatik eta beste kasu batzuk lan arrazoiengatik.
- ✓ Bilboko Ur Partzuergoan sartzearen ondorioz, udal langile 2 birkokatuak.

DIRUZAINZTA

- ✓ Historiako aurrekonturik handienak kudeatu ditu gestorak. Islatu al da hori herrian?
- ✓ Lurzoru publikoaren erosketak **zero** izan da.
- ✓ Lege urraketa eta ustelkeria kasuek datozen urteetarako udalaren aurrekontuak hipotekatu ditu.
- ✓ Orokorrean, aurrekontuaren zatirik garrantzitsuenak hirigintza arlorako erabili da, beste arloak kasik proiekturik gabe gelditu direlarik.

KUDEAKETA EREDUA

- ✓ 2003-2007an hasita, burokrazia nabarmen igo da udalean, eta horrek hainbat prozeduran oztopoak izatea eta udal zerbitzuen mantsotzea ekarri du.
- ✓ 2007-2011an, gestorako kideen artean koordinazio falta itzela nabaritu da.
- ✓ Gestora kide batzuk ez dira ia agertu legealdi guztian.
- ✓ Gestorakide eta udal teknikarian artean harreman hotza, eta momentu batzuetan teknikariek arduradunekin egoteko zailtasunak ere izan dituzte.
- ✓ Alderdi bereko kideen artean ere koordinazio falta: gestorako aurreko legealdiko zinegotziekin harreman gutxi edo bat ere ez.